**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2021ZHIT0014
**Erreg. data/**Fecha reg**:** 2021/09/16 **Erreg. zk** ./ Nº registro**:** 015443
**Gaia/**Asunto**:** ERRENTERIAKO UDAL ESNABIDE 32. SEKTOREAN BABES SOZIALEKO ETXEBIZITZAK SUSTATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENA - PRÓRROGA DEL CONVENIO DE COLABORACION PARA LA PROMOCION DE VIVIENDA DE PROTECCION SOCIAL EN EL SECTOR 32 ESNABIDE DE ERRENTERIA
**Eskatzailea/**Solicitante**:** EUSKO JAURLARITZA **-** Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes **NAN(IFK)**/DNI(NIF): S4833001C
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** ESNABIDE KALEA, ERRENTERIA

## DEKRETUA

### AURREKARIAK

I. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak Udal honi igorri dio Esnabide 32. sektorean etxebizitza sozialak sustatzeko lankidetza-hitzarmenaren luzapen-zirriborroa.

II. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta Errenteriako Udalak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten 2022ko urriaren 3an, Errenteriako udal mugarteko 32 sektorean («Esnabide») babes sozialeko etxebizitzak sustatzeko (akordioa 2022ko urriaren 25eko GAOn argitaratu zen). Hitzarmenaren xedea da Esnabide 32. sektoreko B-2 partzelan alokairurako babes sozialeko etxebizitzen sustapen bat gauzatzea, Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasota dagoena. Gainerako aurrekari eta oinarri juridikoa aipatutako espedientean jasotako txosten eta onarpen ebazpenetan jasota daude, eta aipatutzat jotzen dira hemen beharrezkoak ez diren errepikapenak ekiditeko.

III. Hitzarmenean jasotako betebeharren artean zegoen udalaren betebeharra aipatutako orubea Eusko Jaurlaritzari doan lagatzeko, eskualdatze hori 2023an formalizatu zelarik.

IV. Hala ere, 2022an sinatutako hitzarmena 2026ko urriaren 3an iraungiko da, eta ez dago astirik egitekoak ziren gainerako helburuak eta ekintzak

## DECRETO

### ANTECEDENTES

I. Se ha remitido desde el Departamento de Vivienda y Agenda Urbana del Gobierno Vasco a este Ayuntamiento un borrador de prórroga del convenio de cooperación para la promoción de vivienda social en el Sector 32 de Esnabide.

II. Con fecha 3 de octubre de 2022 se suscribió el Convenio de Colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, y el Ayuntamiento de Errenteria, para la promoción de vivienda de protección social en el sector 32 "Esnabide", en el término municipal de Errenteria (acuerdo publicado en el BOG de fecha 25 de octubre de 2022). El convenio tiene por objeto posibilitar la ejecución de una promoción de vivienda de protección social en alquiler en la parcela B-2 del Sector 32 Esnabide, recogido en el Plan General de Ordenación Urbana de Errenteria. Los restantes antecedentes y fundamentación jurídica de dicho convenio figuran en los informes y resoluciones aprobatorias del convenio contenidas en el expediente de referencia, que se dan por reproducidas a efectos de evitar reiteraciones innecesarias.

III. Entre las obligaciones recogidas en el convenio figuraba la obligación del Ayuntamiento de ceder gratuitamente al Gobierno Vasco la parcela en cuestión, transmisión que fue formalizada en 2023.

IV. No obstante, el convenio suscrito en 2022 vence el 3 de octubre de 2026, siendo el plazo restante insuficiente para ejecutar los restantes objetivos y las

ESKUa239d62d-d3ca-4d86-adde-459ba0749564

ordurako egiteko, baitik bat babes sozialeko etxebizitzen exekuzioa Eusko Jaurlaritzaren aldetik. Horregatik, beharrezkoa da hitzarmenaren luzapena izapidetzea, administrazio biek hartutako konpromisoak beteko direla bermatzeko.

acciones previstas en el mismo, en particular la ejecución de la promoción de viviendas de protección pública por parte del Gobierno Vasco. Por ello, es necesario tramitar su prórroga con el fin de garantizar el cumplimiento de los compromisos asumidos por ambas administraciones.

**KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK**

1. Hitzarmenak, zazpigarren klausularen arabera, 4 urteko indarraldia zuen, sinatu zen momentutik hasita. Baina klausula horrek hau ere esaten du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 49.h) 2 artikuluan xedatutakoarekin bat: aurreikusitako epe hori amaitu aurreko edozein momentutan hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dutela hura beste lau urtez luzatzea edo hura iraungitzea

2. Ikusita alderdien arteko beharra eta akordioa orain arte izan duten elkarlanarekin eta koordinazioarekin jarraitzeko, eta jarduketen eta etxebizitza egoki bat legez okupatzeko eskubidea gauzatzeko eraginkortasunaren arteko koherentzia gordetzeko eta Autonomia Erkidegoko eta Euskal etxebizitza politika gidatzen duten eta hitzarmenean aipatzen diren gainerako printzipioak betetzen jarraitzeko, bai-eta hartan jaso ziren helburu guztiak bete ahal izateko, bidezkoa da 2022ko urriaren 3an sinatutako hitzarmena luzatzea.

3. 2/2016 Legeak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 54.g) artikuluaren arabera argitu behar da , Udalaren web gunean sinatutako hitzarmen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena eta betebehar ekonomikoak-halakorik baldin badago. Euskal Autonomia Erkidegoko Toki-erakundeek publizitate aktiboaren neurri hau inplementatzeko, eta kontuan hartuta hitzarmenaren onarpena GAOn argitaratua izan zela, egokia da GAOean argitaratzea hitzarmenaren luzapena.

4. 2025eko urriaren 3ko Alkate-Dekretuak ebazten du Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola sail edo

**CONSIDERACIONES JURÍDICAS**

1. De acuerdo con la cláusula séptima del convenio, la vigencia de éste era de 4 años a contar desde su firma. No obstante, en conformidad con lo establecido en el artículo 49.h) 2º de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, dicha cláusula también señalaba que, en cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto, los firmantes del convenio podrían acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

2. Vista la necesidad y el acuerdo entre las partes para proseguir con la colaboración y coordinación obtenida hasta ahora, así como con la finalidad de continuar manteniendo la coherencia entre las actuaciones con la efectividad del derecho a acceder a la ocupación legal de una vivienda adecuada y con el sentido de seguir cumpliendo con el resto de los principios rectores de la política de vivienda en Euskadi a los que hace referencia el Convenio y dar cumplimiento a la totalidad de los objetivos recogidos en el mismo, procede acordar la prórroga del convenio suscrito el 3 de octubre de 2022

3. A tenor de lo establecido en el artículo 54.g) de la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi, deberá de publicarse en la página web municipal, la relación de convenios con mención expresa de las partes firmantes, su objeto, duración y en su caso, de las obligaciones económicas de las Entidades Locales. Con el fin de implementar esta medida de publicidad activa, y en la medida que la aprobación del convenio también fue objeto de publicación en el BOG, es conveniente publicar en el BOG que se ha procedido a la prórroga del convenio.

4. El decreto de alcaldía de fecha 3 de octubre de 2025, determina que la aprobación de los convenios

ESKUa239d62d-d3ca-4d86-adde-459ba0749564

azpisail bati baino gehiago eragiten dieten edota bere diru-kopurua 120.000 € baino handiagoko lankidetza hitzarmenak onartzea. Ondorioz, eta ikusita gainera batzar horrek onartu zuela hitzarmena, hari dagokio bere luzapena onartzea.

de colaboración/cooperación que afecten a más de un área o subárea o que su cuantía económica sea superior a 120.000 € se delega en la Junta de Gobierno Local. En consecuencia, y dado que además fue este órgano el que aprobó el convenio, le compete la aprobación de su prórroga.

Kontuan hartuta lankidetza-hitzarmenaren luzapena ahalik eta lasterren onartzea komeni dela, horren helburua babes publikoko etxebizitzak eraikitzea dela, hasierako indarraldia amaitzear dagoela eta egungo bizitoki-koiuntura ikusita, beharrezkoa da Alkatetza honek Tokiko Gobernu Batzarrari arlo horretan eskuordetutako eskumena berreskuratzea, 40/2015 Legearen 10. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Considerando la conveniencia de aprobar la prórroga del convenio de cooperación para la promoción de vivienda social en el Sector:32 Esnabide, a la vista de que su objeto es la construcción de vivienda de protección pública, que la vigencia inical del convenido está a punto de expirar, y la coyuntura habitacional existente, es preciso que esta Alcaldía avoque la competencia delegada a la Junta de Gobierno Local en la materia, según las previsiones del artículo 10 de la Ley 40/2015.

Horregatik guztiagatik, Alkatetza honek, Hirigintzako aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin, esleituta dituen eskumenak baliatuz.

Por todo ello, esta Alcaldía, con la conformidad dada por el asesor jurídico de Urbanismo a la propuesta de decreto que consta en el expediente, en uso de las atribuciones que tiene conferidas.

Honen bidez,

Por la presente,

**ERABAKI DU:**

**ACUERDA:**

**Lehenengoa**.- Onartzea lau urtez luzatzea (2030eko urriaren 3ra arte) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko garai hartako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta Errenteriako Udalak sinatutako hitzarmena, Errenteriako udal-mugarteko 32 sektorean («Esnabide») babes sozialeko etxebizitzak sustatzeko.

**Primero**.- Acordar prorrogar por un plazo de 4 años (hasta el 3 de octubre de 2030) el convenio suscrito entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el entonces Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes y el Ayuntamiento de Errenteria, para la promoción de vivienda de protección social en el sector 32 "Esnabide", en el término municipal de Errenteria.

**Bigarrena**.- Hitzarmenaren luzapenaren dokumentua sinatzea, baita bere osagarri diren beharrezko beste edozein dokumentu sinatzeko ere.

**Segundo**.- Proceder a la firma del documento de la prórroga del convenio, así como de cualesquiera otros documentos complementarios que fueran necesarios.

**Hirugarrena**.- Akordio hau udal webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Tercero**.- Publicar el presente acuerdo en la página web municipal y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Errenteria, sinadura elektronikoaren datan

Errenteria, a fecha de firma electrónica

ESKUa239d62d-d3ca-4d86-adde-459ba0749564

Alkatea / La alcaldesa

Aizpea Otaegi Mitxelena

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2021ZHIT0014-DEKRETUA/DECRETO (EUSKO JAURLARITZA - DEPARTAMENTO DE P |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

**PO Aizpea Otaegi Mitxelena**
**Alkatea**
**Data:** 2026/09/03 09:56:15